



AIZARNAZABALGO UDALA

MAIATZA

KIROL BATZORDEAREN SORRERA ETA INDAMENDI EGUNEKO MARTXA.

Apirilaren 24ean ospatu zen kirol batzordea osatzeko bilera, helburua lortu zelarik. Adin ezberdinetako taldetxo bat osatu zen.

Aizarnazabalgo Kirol Batzordeak martxan jarri da eta ekintzei hasiera emateko asmoz hilabete honetan INDAMENDI EGUNEKO mendi martxa antolatuko du.

Ekintzaren xehetasunak:

- **Eguna:** Maiatzaren 16, igandea.
- **Irteeraren ordua** librea izango da.
- **Tontorrera iristen den herritarrak** herriko tabernetako batean pintxoa jateko tiketa jasotzeko aukera izango du.
- **Tiketa jasotzeko ordu tartea:** 10etatik 12etara.

- Aipatutako datan ezarrita egongo diren COVID neurriak errespetatuko beharko dira.
- Norberaren ardurapean burutuko den mendi martxa izango da.

Batzordearen hurrengo bilera Maiatzaren 12an ospatuko da arratsaldeko 18:00etan udaletxean. Gonbitea parte hartu nahi duen guztiari zabaltzen zaio.

ALAITSU DANTZA TALDEAREN EMANALDIA

Maiatzaren 8an arratsaldeko 6etan Alaitsu dantza taldearen Samiel Txikitako emanaldia eskeiniko da Atari Soro pilotalekuan.

Ikustera etortzeko dantzariak gonbidapenak banatuko dituzte legeak agintzen duen aforoa egoki betetzen dela bermatzeko. Gonbidapenik gabe ezingo da sartu.

Ikuskizunak irauten duen bitartean beharrezkoa izango da norbera bere eserlekuan egotea eta musukoa jantzita izatea.

Unean uneko egoera kontutan izanik antolakuntzak emango du hartzen diren neurri guztien berri eta beraz ezinbestekoa izango da antolakuntzak emandako jarraibidei kasu egitea.

ALAITSU MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO IZEN EMATEA 2021-2022

- Izenemateko epea: maiatzaren 17tik 31bitartean, biak barne.

Jarraibideak:

- Galdetegia bete eta bidali (galdetegiaren lotura waxxapez bidaliko da). Norbaitek jasoko ez balu eta interesik balu ondorengo emailera idatzi dezake: **alaitsu.musikadantzaeskola@gmail.com**



AIZARNAZABALGO UDALA

- Eskaintza, prezioak, ordainketa moduak eta beharrezko xehetasun guztiak galde-tegiarekin batera jakinaraziko dira.

Norbaitek edonolako zalantzarik balu goian aipaturiko helbidera idatzi eta ahal bezain laster erantzungo zaio.

UDAL GAIAK

SAMIEL TXIKI EGUNA

Udalak jakinarazten du COVID-19 egoera dela eta **ofizialki** ez dela Samiel txiki eguna ospatuko sortu daitezkeen arazoak ekiditeko asmoz.

UDALEKUETAN MATRIKULATZEKO EPEA.

Apirilean udalekuen inguruan eginiko tanteoaren emaitzak aztertutik udalak uztaileko udalekuak antolatzea erabaki du, beti ere jasotako emaitzak bere horretan mantenduko balira.

Ezaugarriak:

- Hasera eta amaiera datak: uztaialaren 5etik- 30era.
- Hamabostaldika eskeiniko da.
- Ordutegia: 10:00etatik-13:00etara.
- Adin tartea: 4 urtetatik 12 urte bitarteko haurrak.
- Izena emateko epea :maiatzaren 4tik 11era bitartean, biak barne.

Izenemate orriak liburutegian izango dira eskuragarri egun hauetan.

Oharra: epez kanpo ez da inor onartuko.

COVID-19 eta GIMNASIOAREN ERABILERA.

COVID-19 egoera dela eta udalak baieztatu du gimnasioan hainbat erabiltzaileek ez dituztela legean dauden neurriak betetzen.

Hau ikusirik ondoren aipatuko diren arauak DERRIGORREZ bete behar direla beste behin jakitera ematen du:

- Musukoa beti jantzita eduki behar da , kirola egiten denean ere.
- Lehioa eta atea irekiritu egon behar dute.
- Gehiegizko aforoa 4 pertsona da.
- Aldagelak , une honetan, ezingo direla erabili.

Oharra:



AIZARNAZABALGO UDALA

Jakinarazpen hauek egin eta ez direla betetzen egiaztatuko balitz udalak dagozkion neurriak hartuko ditu, bai norbanakoi dagokionez edo erabileraren osotasunari dagokionez.

COVID-19, EREMU GORRIKO NEURRI MURRIZTAILEAK

Atzekaldean doaz herria eremu gorrian dagoenez indarren sartu diren neurriak.